



ZESTOAKO UDALA

## **AKTA**

Tokiko Gobernu Batzarrak 2018ko apirilaren 26an buruturiko ohiko saioari dagokiona.

Zestoako Udaletxean, bi mila eta hemezortziko urtarrilaren hamaseian, Jose Francisco Mendizabal Irigoien Alkate jauna mahaiburu delarik, Gorka Unanue Zabala eta Mikel Arregi Urrutia korporakideak bildu dira.

Ondorengo akordioak hartu dira:

1.- Bere osotasunean onartzen da Gobernu Batzordeak 2018ko martxoaren 22an buruturiko saioari dagokion akta.

2.- G.F.AI.K., T.,G eta K. D., Zestoako Udalari baimena ematen dio Alonderoneko Aldapan proiektu arkeologikoa egiteko. Erabaki da aurkeztutako idatziaren berri ematea.

3.- I.A.S.L., Zestoako zezen-plaza eramangarriko hainbat lan egiteko aurrekontua aurkeztu du (ukuilua, musika bandarentzako oholtza...). Erabaki da ontzat ematea aurkezturiko aurrekontua.

3.- O.S.K.ri, Arroa Beheko Sansinenea poligonoko A5 partzelan haragi-produktuen manipulazio eta biltegitzeko jarduerarako duen pabiloia handitzeko eta egokitzeko obretako udal baimena ematea, akordioan zehazten diren baldintzen arabera.

4.- B.A.L.ri, Erdikalea 7 behe oineko lokaleko taberna egokitzeko obretako udal baimena ematea, akordioan zehazten diren baldintzen arabera.

5.- U.U.A., Irao baserria eta Sastarrain baserri-eskolaren lur ez-urbanizagarriaren inguruko Zestoako planeamenduaren Arau Subsidiarioen aldaketaren inguruko txosten gehigarria igorri du. Erabaki da promotoreari helaraztea txostenaren kopia bat.

6.- R.N., Kiroldetikaren obren lehen zertifikazioa aurkeztu du. Erabaki da ontzat ematea.

7.- Zestoako Udalak, Arroaerrekako Azketa-berri etxearen inguruan lur mugimendu haundiak somatu ditu. Udal teknikariek bertara ikuskapena egin ondoren, betelanak egiteko baimena eskatu zuen Lurkide Hondalanak S.L. enpresarekin harremanetan jarriko da gaiaz hitz egiteko.

8.- F.I.G., azaltzen du bere anaia J.I.ren nahia zela bera hiltzen zenean hilerriko panteoia bera eta bere emaztearen izenera pasatzea. Horrela, 2001eko martxoaren 19an J.I.k bere nahia azalduz Udalean aurkeztu zuen idatziaren kopia eman du. Erabaki da eskaera jaso izanaren adierazpena egitea.

9.- E.J.I.,L.P. eta E.S., Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde antolamenduaren gidalerroen berrikuspenaren inguruko idatzia. Erabaki da idatziaren berri ematea.

10.- J.L.E.A.,Arroa Beheko Artzudia aldea ibardiaren berreskurapen eta hobetze lanen



inguruko kamioi erregistroa aurkezten du, 2018ko martxoko hilabeteari dagokiona. Erabaki da jaso izanaren adierazpena egitea.

11.- I.S.I., hurrengo arau subsidiarioen berrikuspenean 21-030 eremuan nekazaritza, abeltzaintza eta landazabaleko kategoria mugaketa aldatzeko eskaera egiten du, gune hori barneratuz. Erabaki da hurrengo Hirigintza Batzordean aztertzea gaia.

12.- J.U.A., Arroabeko Karmengo Amaren errepidea 12an gaur egungo teilatua kendu eta bi isuritako teillatu berria egin ahal izateko kontsulta urbanistikoa egiten du. Erabaki da jakinaraztea proposatu dituen lanak baimengarriak direla; lanekin aurrera egitea erabakiko balu, proiektu teknikoa aurkeztu du beharko du Udalean, aurreikusiriko lan guztiak barne hartzen dituen eta etxebizitza errepide nagusitik gertu dagoela eta, Gipuzkoako Foru Aldundiko Errepide Sailean baimena eskatu beharko du.

13.- U.U.A., AP-8 Zumaiako lotunean Larrondo ibaian drainatze lanen errefortzua gauzatzeko ebazpena igortzen dute. Erabaki da berri ematea.

14.- I.M.Z. eta M.J.A.S., beren nekazaritza ustiapeneko lur sailetatik 1.875 m<sup>2</sup>ko azalera duen lur zatia segregatzeko udal baimena eskatuz, ondoren aldameneko finkarekin elkartu ahal izateko. Erabaki da udal baimena ematea.

15.- J.M.U.G., Arroabeko Tellendi poligonoan L.L.ek jarduera ezartzeko asmoaren inguruko idatzia jaso duela dio. Berak dioenez bilera bat izan zuten T. A.ko jabeak, J.L.E.k, A.I.ko arkitektu batek eta bere semeak. Bilera horretan J. L.E.k esan omen zuen L.k azkenik erabaki duela ez hartzea lokalik poligonoan. Udalean, berriz, esan zaio proiektua ez dela atzera bota eta prozesuak aurrera jarraitzen duela. Ondorioz, hasiera batean bere ezadostasuna azaltzen du proiektuaren inguruan, beharrezko argipenak jaso arte. Erabaki da idatzia jaso izanaren adierazpena egitea.

16.- M.C.A.I., Ertxiña aldean Udalak eta beraiek dituzten partzelen arazoez hitz egiteko bilera eskaera egiten du. Erabaki da G.U. zinegotzia bilduko dela berarekin.

17.- A.I., Eztiola kalea 4 eta Euskal Herria plaza 2-3ko jabeak azken bileraren akta aurkezten du. Erabaki da berri ematea eta Udalarari ordaintzea tokatzen zaion kuota begiratzea.

18.- T.I.S.L.ri, Arroa Beheko Sansinenea Industriguneko A.4 partzelako 5 eta 6 nabeetan "Fundizioko piezen mekanizazioa eta makineriaren muntaia"ren jarduera legeztatzeke udal jarduera lizentzia ematea, akordioan zehazten diren baldintzen arabera.

19.- T.I.S.L.ri, Iraetako Errota poligonoko 18 zenbakidun nabean "Altzairuzko piezen mekanizazioa"ren jarduera legeztatzeke udal jarduera lizentzia ematea, akordioan zehazten diren baldintzen arabera.

20.- T.I.S.L.ri, Iraetako Errota poligonoa 18ko nabe barrua egokitzeko obretako udal baimena ematea, akordioan zehazten diren baldintzen arabera.

21.- J.A.A., M. baserriko bidea partikularra dela eta beraiek konpontzeko itxi egingo dutela dio. Udalarari ziurtagiria eskatzen dio, baimena emanaz eta bidea partikularra



dela adierazten duena. Erabaki da jakinaraztea 2003an Zestoako Udalak behin betikoz onartu zuen Zestoako Herri Bideen inbentarioan M. baserriko bidea, Gorputz Bide bezala azaltzen dela, beraz ezingo da itxi.

22.- A.U.A., Larrazabalbidearen egoera txarraren berri ematen du. Hainbat zulo daudela eta inguruko baserriarrek galipota erosi eta zuloak tapatu zituztela dio. Hala ere, bidea ez omen dago ondo, alboko pareta baten ondoan ura pilatzen delako. Honela, egindako gastua kontutan edukitzea edo aztertzea, eta aipatutako bidean ura ez pilatzeko konponketa egiteko eskaera egiten dio Udalari. Erabaki da jakinaraztea A.U.Ari jakinarazi zitzaioela 2018ko apirilaren 16ko astean Zestoako Udalak baserri bideetako zuloak asfaltoarekin konpontzea aurreikusirik zegoela. Aurreko asteburuan ontziraturiko galipotarekin konpondu zituzten zuloak auzotarrek. Udalak ez du bere gain hartuko egindako gastua, abisatu baitzen udalak berak egingo zituela lan horiek apirilaren 16ko astean. Bestalde, alboko paretaren eta euriaren arazoa aztertuko du Udalak.

23.- C.y R.U.S.L., Arroabeko Narkis Balentziaga kalea 14 behean dituzten eraikuntza lanetako bulegoaren jardueraren aurretiazko komunikazioa aurkezten du. Erabaki da jakinaraztea aurkeztutako dokumentazioa ez dela onartzen. Memorian suteen aurkako neurriak hartu gabe daudela adierazten da eta teknikoaren ziurtagirian berriz, indarrean dagoen araudia betetzen dela ziurtatzen da. Dokumentazio bat bestearekin ez dator bat. Bestalde, ezingo da jarduera martxan jarri dagokion dokumentazioa ongi aurkeztu arte. Obrak egitea beharrezkoa bada, obra baimena eskatuko da udalean.

24.- I.A.S., Arroagoiko Matraka baserrian bi etxebizitza egokitzeari buruzko kontsulta urbanistikoa egiten du. Erabaki da jakinaraztea baimengarria dela bi etxebizitza egitea, arauetako lerrokadura errespetatuz. Kontsultaren aurkeztu diren planoetan ez dira arauetako lerrokadurak errespetatzen. Bestalde, udal baimena lortu ahal izateko oinarritzko proiektua aurkeztu beharko da udalean.

25.- HAPOa idazteko dirulaguntza deialdiaren berri eman da.

26.- F.I.M., Ariztondo 3ko Jabekideen izenean, etxebizitzaren atzekaldean geratzen den pinuaren egoerak kezka handia sortzen dietela dio, hartu duen tamainarengatik eta kokapenarengatik (aldapan baitago). Erabaki da jakinaraztea udaleko lorazaintza zerbitzukoek pinua ikuskatu ondoren, ez dutela inongo arriskurik ziurtatzea.

27.- M.C.A. eta B. A., Herri eskola/San Juan inguruan dituzten lur sailetan dauden bideak konpontzeko eta txukuntzeko baimena eskatu zuten. 2018ko martxoaren 22an egin zen Tokiko Gobernu Batzarrak jakinarazpena igorri zien, falta zen dokumentazioa aurkezteko eskatuz. 2018ko apirilaren 16an aurkeztu zituzten plana eta aurrekontua. Erabaki da obretako udal baimena ematea, akordioan zehaztutako baldintzen arabera.

28.- E.I.I., Akoabidean, Akoabarrena parean eta Txapei baserriaren parean, lurrean zuloak daudela dio. Horiez gain, San Juan egoitza parean ere badaude eta egunero etxera joan-etorrian ibili behar dutenentzeko kalteak eragiten dituztela azaltzen du.



Horrela, Udalari eskatzen dio lehenbaileen arazoari irtenbidea aurkitzea. Erabaki da jakinaraztea udal brigadak 2018ko apirilaren 16ko astean Akua auzoko zenbait zulo galipotarekin konpondu zituela. Txapei eta Zubigoena baserrien ondoan dauden 2 gune konpontzeko enpresa bat azpikontratatu behar da, udal brigadak ez baititu honelako gune zabalak galipotarekin konpontzeko beharrezko baliabideak. Udara bitartean 2 gune hauek konponduko dira.

29.- D.B.Z.E., XVII. Donosti Bi Zaldi Bilkura internaziola dela eta, 2018ko ekainaren 9an Iraetako futbol zelai ondoko belardien inguruan kotxeak aparkatzeko baimena eskatzen du; zehazki, arratsaldeko 14:00etatik 17:00etara bitartean. Erabaki da ekainaren 9an Iraetako futbol zelai ondoko belardi inguruan aparkatzeko udal baimena ematea. Eguraldi txarra eginez gero frontoia erabiltzeko baimena ematen da. Erabilitako eremuak (belardia eta frontoia) garbi utzi beharko dira erabili ondoren.

30.- J.D.A., Alonderoneko aldapako igogailuko obrak direla eta, Zubimusu kalera doan bidea itxi delako kexa aurkezten du. Dio ez duela ulertzen asteburuetan bidea zergatik egoten den itxita, ulertzen duela astetartean lanean ari direnean ixtea, baina ez lanean ez direnean ari. Horrekin batera, adierazten du ez duela ulertzen nola hartu daitekeen horrenbeste leku obra hori egiteko, hainbeste aparkaleku kenduz. Bestalde, aipatzen du Bainuetxeko pasealekuan argiztapen falta dagoela.

Ondorengo erabakiak hartu dira: igogailuaren obran egin beharreko lur-indusketak segurtasun baldintzak bermatuaz egin behar dira. Ikusirik egun euritsuak egin dituela eta ondotik igarotako trafikoaren pisua kaltegarria zela indusketa lanentzat, Alonderoko aldapako trafikoa etetea erabaki zuen udalak; obra egiteko hartu den espazioa beharrezkoa da obrak modu egokian eta seguruan egin ahal izateko; Bainuetxeko pasealekuko argiztapen faltari dagokionez, epe motzean herriko argiteri sistema aldatuko da (sodio sistematik Led sistemara pasako da). Honegatik guztiagatik, argiztapen kalitatea hobetzea aurreikusten da Urola ibaiaren eta kanpo futbol zaharraren artean dagoen pasealekuan.

31.- Z.A.F.S.Lri., Sabea kalea 1-8ko jabekideen izenean, Iraetako Sabea kalean duten igerilekurako sarreran itxitura jartzeko obretako udal baimena ematea, akordioan zehazten diren baldintzen arabera.

32.- Z.A.F.S.L.ri, Sabea kalea 1-8ko jabekideen izenean, Iraetako Sabea kalea 1-8ko tximinetako uren-isurketako hodiak aldatzeko udal baimena ematea, akordioan zehazten diren baldintzen arabera.

33.- X.E.G., Arroabeko K. baserrian eta K. etxearen inguruan lapurretekin arazoak izan dituztela dio eta, ondorioz, langa jartzeko udal baimena ematea, akordioan zehaztutako baldintzen arabera.

35.- A.A.U., gaztetxearen kanpoan lagata zituzten aulkiak bueltan jasoteko eskaera egiten du. Erabaki da gaia hurrengo Hirigintza Batzordean aztertzea.

36.- J.M.I.L., Iraetako O. etxean obrak egiten aritu direla dio. Zehazki Aste Santuetako egunetan zarata handia ateraz eta obra baimenik gabe aritu direla. Erabaki da jakinarazpen bat igortzea, obra baimena eskatu behar dela adieraziz.

37.- K.I.ri, Parrokiko kanpandorreko gangako konponketak egiteko obretako udal



## ZESTOAKO UDALA

baimena ematea, akordioan zehazten diren baldintzen arabera.

38.- I.I.A., Foru plazako K. tabernaren fatxadan “toldo laterala” jartzeko udal baimena ematea, akordioan zehaztutako baldintzen arabera.

39.- K.Z.L.ri, Gesalaga kalea 1 1A etxebizitzako bainugela eraberritzeko obretako udal baimena ematea, akordioan zehaztutako baldintzen arabera.

40.- Z.O. y P.S.L.ri, Elizkalea 1 zenbakiko fatxada margotzeko andamioak jartzeko udal baimena ematea, akordioan zehaztutako baldintzen arabera.

41.- I.G.K., Etorrabidean, G. etxetik gertu dagoen errebueltan simaurra bota dutela dio. Errebuelta hori bi kotxe gurutzatuz gero ondo sartzeko egokitu zutela dio. Simaurrak landa-bidetik 5 metrotara egon behar omen du eta etxebizitzetatik 100 metrotara. Ondorioz, neurriak hartzea eskatzen dio Udalari. Ez dira simaurra pilatzearen aurka agertzen, baizik aurreko urteetan bezala, kokapen eta higiene neurriak errespetatuz, simaurra pilatzeko denborak eta kantitateak ere betez. Erabaki da jakinaraztea, simaurra pilatzen duenari, hainbat neurri bete behar dituela ohartaraziko zaiola

42.- K.K.A., Area AG.I.1 Agoteko birpartzelazio proiektua dela eta, alegazioak aurkezten ditu. Erabaki da alegazioak Agoteko Konpentsazio Juntari igortzea.

43.- J.M.U.U.ri, Arroagoiko G. baserriko teilatua berritzeko obretako udal baimena ematea, akordioan zehazten diren baldintzen arabera.

44.-A.I., Eztiola kalea 4 eta Euskal Herria Plaza 2-3ko garajeetara jeisteko aldapa oso berdea eta irristakorra dagoela eta, Udalari aldapa garbitzeko eskatzen dio. Erabaki da birpartzelazio proiektua begiratzea, ikusteko aldaparen mantenua Udalari ala Jabego Elkarteari dagokion.

45.- ELKARTUK, Gesalaga kalea 10eko portalean dituzten irisgarritasun arazoan azterketa egin ondoren, proposamen bat egiten du. Erabaki da jakinaraztea igogailua jeisteko aukera garatzea proposatzen dela. Udalak ez du onartzen kanpoko espazio publikoa okupatzea.

46.- J.M.M.U., Elizkalea 6 zk.an kokaturik dagoen eraikinari 1974 urtean egitura berria egin ziotela azaldu dio udalari, eta ondorioz EIT txostena egitea salbuesteko eskatzen dio udalari 2024 urtera arte (1974 urtetik kontatzen hasi eta 50 urtera). Erabaki da jakinaraztea 1973. urtean Zestoako Udalak N. M.I. jaunari emandako obretako udal baimena aztertu ondoren, ikusi dela ez zela proiektu teknikorik aurkeztu eta espedientean ez dagoela obrak teknikari gaitu baten kontrolpean egin zirela bermatzen duen ziurtagiririk.

47.- Zestoako Udalak jakin du R.T.B.k Zubimusu kalea 14an bulegoak dituela. Erabaki da jakinaraztea interesatuak udal honetan ez duela jardueraren berri eman eta jarduera legezatu beharko duela, beraz, Udalean aurkeztu beharko du dagokion dokumentazioa.

48.- J.A.G., Aizarnako 05 poligonoko 008 partzelan oilo erruleentzako eraikuntza



ZESTOAKO UDALA

egiteko obretako baimena eman zion Zestoako Udalak. Orain, interesatuak hirigintza sailean kontsulta egin du eraikuntza honen kokapena aldatzeko. Aizarnako 06 poligonoko 019 partzelan egin nahi du orain oilo erruleentzako eraikuntza. Erabaki da jakinaraztea kokapen planoan ez direla ondoko beste partzeletara eta herrigunera legeak ezarritako distantziak betetzen. Ondorioz, aurkezturiko planoan zehazturiko oilo erruleen eraikuntzaren kokapena ez dela onargarria aipatu da.

### **Batzorde informatiboen bileren akten onarpena**

2018ko apirilaren 3an, Gazteria eta Kirol Batzordeak eginiko bileraren akta onartzea.

2018ko martxoaren 22an, Kultura eta Euskara Batzordeak eginiko bileraren akta onartzea.

**Alkatetza ebazpenak**.- Honako Ebazpenen berri eman da:

- \* 26 zk, M<sup>a</sup>.C.A. A.en kontratazioa, etxez-etxeko langileen oporraldien ordezkapena.
- \* 27 zk, M. A. A.en kontratazioa, I. Aranguren. gizarte langilearen ordezkapena.
- \* 28 zk, N.O.A.i lanaldia %65era jeistea, I.A.en ordezkapen modura betetzen zuen %25 kendu eta gero.
- \* 29 zk, I.E.L.en kontratazioa %32an, M.A.E.L. zituen zenbait zerbitzu egiteko.
- \* 30 zk, E.M.R.ri Zestoako Baratze parkeko 15 zenbakidun ortua erabiltzeko lizentzia ematea.
- \* 31 zk, A..O.L.i Zestoako Baratze parkeko 15 zenbakidun ortua erabiltzeko lizentzia ematea.
- \* 32 zk, Musika Bandari, hitzarmen bidez, egiten dion zuzeneko ordainketaren bigarren zatia aurrerapen gisa ordaintzeko agindua.
- \* 33 zk, Zestoako Interpretazio Eskolari, hitzarmen bidez, egiten dion zuzeneko ordainketaren bigarren zatia aurrerapen gisa ordaintzeko agindua.
- \* 34 zk, B.S.L.ri Arroabeko AB.1.12an nabe bat eraikitzeko obretako udal baimena ematea.
- \* 35 zk, Ertxiña Musika Eskolari, hitzarmen bidez, egiten dion zuzeneko ordainketaren bigarren zatia aurrerapen gisa ordaintzeko agindua.
- \* 36 zk, C.F.S.A.ri udal jabetzako baso pista eta bideen erabilera berezia egiteko lizentzia ematea.
- \* 37 zk, E.S.L.ri udal jabetzako baso pista eta bideen erabilera berezia egiteko lizentzia ematea.
- \* 38 zk, I.G.B.ri udal jabetzako baso pista eta bideen erabilera berezia egiteko lizentzia ematea.
- \* 39 zk, B.T. etxez-etxeko langileari kontratua %85ean egitea.



ZESTOAKO UDALA

**Galdera eta erreguak.-** Ez da egon.

Zestoan, 2018ko azaroaren 23an  
Idazkaria,

O.e

Alkateak,